ALKATETZA DEKRETUA

2026 000007389

Espediente-zenbakia: 2026/KON_IRE_0006

Xedea

Gabonetako argi apaingarriak hornitzeko, muntatzeko, desmuntatzeko, mantentzeko eta berritzeko kontratu mistoa kontratatzeko espedientea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Gabonetako argi apaingarriak hornitzeko, muntatzeko, desmuntatzeko, mantentzeko eta berritzeko kontratu mistoa kontratatu behar da. Horiek horrela, 2026ko ekainaren 22ko erabaki bidez, kontratazio espedienteari hasiera eman zaio.

Bigarrena: Aukeratutako prozedura irekia da, kontratuaren prezioaren arabera eta parte hartze ahalik eta zabalena bermatzeko asmoz. Kontratuaren balio estimatua 383.240,88 eurokoa da, BEZa kanpo. Balio hori kontuan hartu da lizitazio prozedura eta egin beharreko publizitatea aukeratzeko.

Bestalde, kontratu honen lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 193.217,28 eurokoa da, BEZa barne. Kopuru hori izango da kontratazio organoak konprometitu ahal izango duen gehienezko gastua.

Hirugarrena: Zerbitzu saileko teknikariak 2026ko irailaren 21ean justifikazio memoria zuzendua eman zuen, kontratuaren beharra eta egokitasuna azaltzeko.

Laugarrena: 2026ko irailaren 18an, Idazkaritzako AOTk txosten juridikoa igorri zuen, aurreikusitako gastua estaltzen duen kreditu atxikipena egitearen menpe.

Bosgarrena: 2026ko irailaren 22an, Idazkari Nagusiak txostena igorri zuen.

Seigarrena: 2026ko irailaren 29an, Kontu hartzaileak txostena igorri zuen.

Argudioak

Lehenengoa: Kontratu administratibo baten aurrean gaude, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 25. artikuluaren arabera.

Bigarrena: Kontratu hau kontratu misto gisa kalifikatu behar da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 18. artikuluan ezarritakoaren arabera: zerbitzu kontratuak objektu hau dutenak dira: *Se entenderá por contrato mixto aquel que contenga prestaciones correspondientes a otro u otros de distinta clase.*

CSV: 07EA00178DEE00A4E2X6H5O8J6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00178DEE00A4E2X6H5O8J6

Sinadurea eta datea

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/10/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/10/2026 08:51:16

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Hirugarrena: Espediente honetan prozedura irekia erabiltzea proposatu da, eta erabiliko diren esleipen irizpideak automatikoak dira, ekonomikoak zein kalitateari zuzenean lotutakoak.

Laugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-organo gisa duen eskumena alkatea da, balio estimatua indarrean dagoen aurrekontuaren baliabide arrunten % 10 baino handiagoa ez delako.

Erabakia

LEHENENGOA: Kontratazioaren beharrizana eta espedientearen hasiera berrestea.

BIGARRENA: Gabonetako argi apaingarriak hornitzeko, muntatzeko, desmuntatzeko, mantentzeko eta berritzeko kontratu mistoari dagokion espedientea, Administrazio Baldintza Agiriak eta Eranskinak, eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 156 eta 158 artikuluen artean aurreikusitako prozedura irekiaren bidez.

Gehienez ere 193.217,28 euroko aurrekontua izango du (BEZa barne), BEZari dagozkio 33.533,58 euro. Kontratuaren balio estimatua 383.240,88 eurokoa izango da, BEZa kanpo.

HIRUGARRENA: Kontratuaren prezioa ordainduko da faktura aurkeztu ondoren, emandako prestazioaren arabera eta udal arduradun eskudunak oniritzia eman ondoren. Fakturan kreditu atxikipena adierazi behar da (RC2026/000518).

LAUGARRENA: Kontratua esleitu eta formalizatzeko, dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etenarazlea bete beharko da.

BOSGARRENA: Lizitaziorako deia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udalaren Kontratugilearen Profilean, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez. Eskaintzak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik hasita.

SEIGARRENA: Zerbitzu Saileko administrazio orokorreko teknikaria izendatzea kontratuaren arduradun.

ZAZPIGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza sailari helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen.

CSV: 07EA00178DEE00A4E2X6H5O8J6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00178DEE00A4E2X6H5O8J6

Sinadurea eta datea

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/10/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/10/2026 08:51:16

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

SEIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta datea orri-oinean .

CSV: 07EA00178DEE00A4E2X6H5O8J6

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00178DEE00A4E2X6H5O8J6

Sinadurea eta datea

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/10/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/10/2026 08:51:16

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia